


Aitzol Barrondo: Ermuar bat Estatu Batuetan

Aspalditik izan du gure herriak zesta puntarako dohaia. Ezin dira ahaztu esaterako, Alex, Arrarte anaiak eta abarrek bere garaian lorturiko ospea. Pilotari hau berriz, 13 urterekin hasi zen gaurregun bere ogibide duen zesta puntan jolasten, eta azkenaldian EEBBetan dabil, nahiz eta hainbat euskaldun urteetan leku hartara eraman dituen kirolak ez dituen bere ordurik onenak bizi. Bera gustora da momentuz denboraldiari eman dion hasierarekin, eta duela gutxi Ermuan Gabonak igarotzen izan da, nahiz eta Gabon Zahar eguna Milford-en pasa zuen.



DROGETENITTURRI- ZESTA PUNTAN DEBUTA 19 URTEREkin EGIN ZENUEN...

Aitzol Barrondo- Bai, Markinako frontoian hain zuzen. Onaindia lagun nuela tantu bakar batengatik galdu genuen.

D.- AURRETIK AFIZIONATUETAN ONGI IBILIA ZINEN...

A.B.- Hegoaldeko Euskadiko junior eta senior mailetan txapeldun izan nintzen. Nahiz eta ondoren Iparraldekoen aurka finalean galdu.

D.- DEBUTA EGIN OSTEAN ITALIAN ETA MEXIKON IZAN ZINEN.

A.B.- Eusko Pilota entpresarekin hasi eta Italiara joateko eskaintza jaso nuen. Bost hilabete egon nintzen han. Ez dut oroimen onegirik:

Frontoi eskasa, lurra bera ere bai, eta pilotarien maila ere ez zen puntakoa. Ondoren, Mexikon egon eta zesta puntaren beherakada etorri zen.

D.- ZESTA PUNTAK KRISI LA-TZA JASAN ZUEN 90EKO HAMAR-KADAREN HASIERAN...

A.B.- Bai, bi urte t'erdi iraun zuen greba harek min handia egin zion zesta puntari. Oraindik ere ondareak ez dira guztiz agortu.

D.- ORAIN MILFORD-ERA ZOAZ, EZTA?


A.B.- Newport-en egon ostean, Milford-era noa. Momentuan, Estatu Batuetan diren frontoietan goreneta-koa da.

D.- NOLA BIZI DUTE ZESTA PUNTA EEBBETAN?

A.B.- Hemen dudarik gabe beste era batera bizi dugu. EEBBetan joko sistema ere ezberdina da, kiniela eran jolasten da. Frontoiaz gain, bingoak, jokolekuak ere izaten dira. Ikuskizun areto bat gehiago da eurentzat.

D.- HEMENGO PILOTARI GEHIAGO DIRA ZUREKIN?

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak
Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza
Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84
Ermua


**IZOTZ
KONJELATUAK**

Ermuko Merkatura, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatura • ☎ 77 05 98

**Urdaitegia
MAITE**

Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

**LURPE
ERMUA**



A.B.- Guztira 42 pilotarik osatzen dugu koadroa, gehienak hemengoak: Markina, Durango eta ingurukoak.

D.- NOLAKOA IZATEN DA EGUN ARRUT BAT?

A.B.- Gaueko 12etan bukatzen dira partiduak eta hurrengo goizeko 12etan berriz hasi. Goizean, soinketa egiteko aprobeztatzen dugu.

D.- ETORKIZUNA NOLA IKUSTEN DUZU?

A.B.- Ez nahi bezain ondo. EEBBetako gobernuaren erabakien

zain gaude. Eusko Jaurlaritzak ere parte hartu beharko luke arazo honetan.

D.- HEMENGO GERTAEREN BERRI JASOTZEN DUZUE?

A.B.- Bai, bertan denbora daramaten lagunek Internet dute eta posta elektronikoz jasotzen ditugu mezuak.

D.- NOIZ BERRIRO ERMURA?

A.B.- Ekain edo uztail aldera berriz ere bisitaldi bat egitea espero dut.

Asier Ibaibarriaga

PATXI TABERNA

Gau eta egun

Alde zaharreko betiko taberna





GARAGARDOTEGIA

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

IZARRA Garraioak



Valdespinako Markesa, 5 - 1.a
☎ 943- 17 01 01 • ERMUA



KALITATEZKO
IRAKASKUNTZA